


# Memoria curso 2019-2020

## Universidad Pública de Navarra

# 2019-2020 ikasturtearen memoria

## Nafarroako Unibertsitate Publikoa

MEMORIA CURSO 2019-2020 UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

El curso 2019-2020 se ha caracterizado por un primer período de funcionamiento normal de nuestra institución y, un segundo, a partir del 14 de marzo de 2020, marcado por la situación excepcional causada por la pandemia COVID-19.

Atendiendo a las grandes áreas de la Universidad, se puede resumir la actividad durante el curso académico 2019-2020 del modo en que a continuación se describe.

## 1. INFORMACIÓN INSTITUCIONAL

1. **Presentación del Informe Final del IV Plan Estratégico 2016-2019**. El informe refleja la evolución positiva de la universidad en el cuatrienio 2016-2019, con un elevado grado de implementación de acciones previstas y consecución de objetivos estratégicos, así como la consolidación de la cultura de la planificación y la medición del desempeño en nuestra Universidad.

2. **Aprobación en Consejo de Gobierno y en Consejo Social del V Plan Estratégico 2020-2023**. El plan recoge los objetivos y acciones estratégicas que guiarán a la universidad en los próximos cuatro años. El despliegue de este plan entre las diferentes unidades de la universidad se ejecutará antes del final del año 2020.

3. **Aprobación de la política y objetivos en materia de calidad de la Universidad Pública de Navarra**. A propuesta de la Comisión de Calidad de la universidad se aprobó en Consejo de Gobierno la política y objetivos en materia de calidad de la universidad. Esta política y objetivos de calidad, basados en los principios de gestión de la calidad total, están alineados con la agenda 2030 y con el V Plan Estratégico 2020-2023 de la universidad.

2019-2020 IKASTURTEAREN MEMORIA. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

2019-2020 ikasturtea berezia izan da: ikasturtearen lehenbiziko partean erakundeak normaltasunez funtzionatu du, eta bigarrenean, 2020ko martxoaren 14tik aurrera, COVID-19aren pandemiak ohiz kanpoko egoera nabarmena eragin du.

2019-2020 ikasturtean Unibertsitatean egin den guztia laburtzeko, Unibertsitatearen arlo nagusietan banatu dugu ikasturteko jarduera.

## 1. INFORMAZIO INSTITUZIONALA

1. **2016-2019 aldirako IV. Plan Estrategikoaren Azken Txostenaren aurkezpena**. Txostenak modu argian islatzen du Unibertsitateak 2016-2019 aldian izan duen bilakaera positiboa, aurreikusitako ekintzak neurri handi batean inplementatu eta helburu estrategiko asko lortu baitira, baita Unibertsitatearen jarduera planifikatzeko eta neurtzeko kultura indartu ere.

2. **2020-2023 aldirako V. Plan Estrategikoaren onespena Gobernu Kontseiluan eta Gobernu Kontseiluan**. Datorren lau urteetan Unibertsitatea gidatuko duten helburu eta ekintza estrategikoak biltzen ditu planak, eta 2020. urtea bukatu baino lehenago zabalduko da Unibertsitateko unitateetara.

3. **Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kalitateari buruzko politikaren eta helburuen onespena**. Unibertsitateko Kalitate Batzordeak proposatuta, Gobernu Kontseiluak onetsi egin zituen Unibertsitatearen kalitateari buruzko politika eta helburuak. Erabateko kalitatearen printzipioetan oinarritutako politika eta helburu horiek 2030eko Agendarekin eta Unibertsitatearen 2020-2023 aldiko V. Plan Estrategikoarekin daude lerrokatuak.

4. **Rankings**. En el ámbito de los rankings universitarios cabe destacar el ranking de universidades 2020 de la Fundación CYD, que sitúa a la Universidad Pública de Navarra como la primera universidad de España en contribución al desarrollo regional. En conjunto, la Universidad Pública de Navarra se posiciona en el segmento alto dentro de las universidades españolas. Además, este curso académico la universidad ha sido incluida en el prestigioso ranking THE Impact, que evalúa el rendimiento de las universidades en los Objetivos de Desarrollo Sostenible fijados por Naciones Unidas.

4. **Rankingak**. Unibertsitateei buruzko rankingen arloan, nabarmentzekoa da CYD Fundazioaren 2020ko rankinga; izan ere, Espainiako unibertsitateen artetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoa lehenbiziko postuan ageri da eskualdearen garapenari egindako ekarpenari dagokionez. Oro har, Nafarroako Unibertsitate Publikoa Espainiako unibertsitateen goi-mailako segmentuan dago kokatua. Gainera, ikasturte honetan, THE Impact ranking ospetsuan sartu dute NUP. Ranking horrek unibertsitateen errendimendua ebaluatzen du Nazio Batuek garapen jasangarrirako ezarritako helburuak oinarri hartuta.

5. **Acuerdos del Consejo de Gobierno**. En el curso 2019-2020, el Consejo de Gobierno ha celebrado 10 sesiones en las que se han adoptado 105 acuerdos.

5. **Gobernu Kontseiluaren erabakiak**. 2019-2020 ikasturtean, Gobernu Kontseiluak 10 bilera egin ditu, eta 105 erabaki hartu.

6. **Resoluciones**. En el curso 2019-2020, los diferentes miembros del equipo rectoral (rector, vicerrectores y vicerrectoras, secretario general y gerente) han dictado 2227 resoluciones.

6. **Ebazpenak**. 2019-2020 ikasturtean, errektoretza-taldeko kideek (errektorea, errektoreordeak, idazkari nagusia eta kudeatzailea) 2.227 ebazpen eman dituzte.

## 2. ENSEÑANZAS

El curso 2019-2020 ha sido singular por la irrupción de la pandemia por la COVID-19, que ha modificado sustancialmente la organización académico-administrativa de las enseñanzas de la Universidad Pública de Navarra. La supresión a partir de marzo de toda la actividad presencial determinó la necesidad de adoptar importantes medidas organizativas que permitieran finalizar con éxito el curso 2019-2020.

La necesaria transición de una modalidad de docencia y evaluación presencial al escenario virtual ha requerido la implementación de instrumentos de apoyo que se han materializado a través de la elaboración de la “Guía básica para adaptar la docencia presencial

## 2. IKASKETAK

2019-2020 ikasturtea berezia izan da COVID-19aren pandemiaren eraginez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketen antolamendu akademiko-administratiboa goitik behera aldatu baitu. Martxotik aurrera jarduera presentziala bertan behera uztearen ondorioz, beharrezkoa izan zen antolamenduarekin lotutako neurri nabarmenak hartzea 2019-2020 ikasturtea behar bezala bukatzeko.

Irakaskuntza eta ebaluazio presentzialean oinarritutako modalitate batetik modalitate birtual batera igarotzeko, beharrezkoa izan da laguntzarako zenbait tresna inplementatzea, eta, horretarako, bi dokumentu prestatu dira, hots, “Irakaskuntza presentziala online

a la modalidad online" y la redacción del documento de "Recomendaciones para la adaptación del sistema de evaluación a la modalidad online".

Administrativamente, la supresión de la actividad presencial ha acelerado el proceso de implantación de los certificados académicos electrónicos y la expedición del título oficial electrónico, que es sin duda alguna la novedad más importante llevada a cabo ese curso. La implantación de ambos procesos coincidió con la declaración del estado de alarma, lo que ha permitido que pudieran seguir tramitándose ambos documentos sin la presencialidad hasta ahora necesaria tanto del personal de administración como del alumnado.

## Oferta académica

En el curso 2019-2020 se ofertaron en la UPNA 25 Grados, 6 dobles Grados y 26 Másteres Universitarios, un doble Máster, además de 13 Programas de Doctorado. Contamos también con la oferta de 26 Títulos Propios.

Uno de los aspectos más reseñables del pasado curso fue la puesta en marcha de tres nuevos títulos de Grado: Historia y Patrimonio, Medicina y Psicología, con una gran acogida entre el alumnado de Bachiller. Se han implantado también tres nuevos dobles Grados: Ingeniería en Tecnologías de Telecomunicación con Ingeniería Biomédica, Ciencia de Datos con Administración y Dirección de Empresas, Maestro en Educación Infantil con Maestro en Educación Primaria; y un doble Máster Universitario: Ingeniería Industrial con Dirección de Empresa.

Se sigue apostando por la impartición de la docencia en varios idiomas. Se incrementó un 12,5% la oferta de asignaturas en euskera, con un total de 342 asignaturas (2106 ECTS) ofertadas en Grado durante el curso 2019-2020. De ellas, 146 (954 ECTS) asignaturas

modalitatera egokitzako gida oinarrizkoa" eta "Ebaluazio sistema online modalitatera egokitzeko gomendioak".

Administrazioari dagokionez, jarduera presentziala bertan behera uzteak azkartu egin du ziurtagiri akademiko eta titulu ofizial elektronikoen ezarpena, eta horixe izan da, zalantzarik gabe, ikasturte honetako nobedaderik garrantzitsuena. Bi prozesu horiek alarma-egoera deklaratu zenean ezarri ziren, eta, horri esker, posible izan da dokumentu horiek tramitatzen jarraitzea nola administrazioko langileak hala ikasleak aurrez aurre egon beharrik gabe, ordura arte nahitaezkoa baitzen.

## Eskaintza akademikoa

2019-2020 ikasturtean, 25 gradu, 6 gradu bikoitz, unibertsitateko 26 master eta master bikoitz bat eskaini ziren NUPen, doktoretzako 13 programaz gainera. 26 titulu bereki ere eskaini ziren.

Joan den ikasturteko alderdi aipagarrienetako bat izan zen graduko hiru titulu berri sortu zirela, hots, Historia eta Ondarea, Medikuntza eta Psikologia, eta oso harrera ona izan zuten Batxilergoko ikasleen artean. Era berean, hiru gradu bikoitz berri ezarri dira (Telekomunikazio Teknologien Ingeniaritza eta Ingeniaritza Biomedikoa; Datuen Zientzia eta Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Irakasletza), baita unibertsitateko master bikoitz bat ere (Industria Ingeniaritza eta Enpresen Zuzendaritza).

Oraindik ere, hizkuntza batean baino gehiagotan irakastearen aldeko apustua egiten dugu. 2019-2020 ikasturtean eskainitako euskarazko irakasgaien eskaintzak % 12,5 egin zuen gora graduetan, eta guztira 342 izan dira euskaraz emandakoak (2.106 ECTS). Horietatik, 146

corresponden a los Grados en Maestro en Educación Infantil y Maestro en Educación Primaria, que se imparten íntegramente en euskera. En los estudios de Máster, el total de asignaturas ofertadas en euskera ha sido de 10 (54 ECTS), correspondientes al Máster Universitario en Profesorado de Educación Secundaria.

La oferta de asignaturas en inglés también se ha incrementado alrededor del 18% en Grado, con un total de 174 asignaturas (1047 ECTS) ofertadas en el curso 2019-2020. De los 9 Programas Internacionales que oferta actualmente la universidad (7 en Grado y 3 en dobles Grados), destacan por su elevada oferta de asignaturas en inglés los Programas Internacionales del Grado en Administración y Dirección de Empresas (100% de las asignaturas obligatorias), doble Grado en Administración y Dirección de Empresas y Economía (95% de las asignaturas obligatorias) y Grado en Ingeniería en Tecnologías Industriales (80% de las asignaturas obligatorias).

Se mantiene la oferta conjunta de Grados con programas de aprendizaje de idiomas en inglés, francés y alemán, y se amplía en la oferta de Títulos Propios asociados a Grados. Concretamente, se han ofertado 4 nuevos Títulos Propios (Ciberseguridad y hacking ético, Gestión de Empresa Familiar, Lesiones Deportivas y Cuidado del Suelo Pélvico) asociados a 11 Grados. Estos programas formativos complementarios a los estudios de Grado pretenden mejorar la empleabilidad de nuestro alumnado.

## Ordenación académica

Durante el curso 2019-2020 se han tramitado 338 modificaciones a la Programación Docente aprobada en Consejo de Gobierno el 29 de marzo de 2019 y ajustes de Encargo Docente, distribuidas de la siguiente manera: 265 corresponden a grado y 73 a Máster.

irakasgai Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasletzako graduetakoak izan dira (954 ECTS), aukera baitago gradu horiek osorik euskaraz ikasteko. Masterreko ikasketetan, osotara 10 irakasgai eman dira euskaraz (54 ECTS), Bigarren Hezkuntzako Irakasletzako Unibertsitate Masterrekoak denak.

Ingelesezko irakasgaien eskaintza ere % 18 hazi da graduetan, eta osotara 174 irakasgai eman dira 2019-2020 ikasturtean (1.047 ECTS). Unibertsitateak gaur egun eskaintzen dituen nazioarteko 9 programetatik (graduko 7 eta gradu bikoitzeko 3), honako hauek dira nabarmentzekoak ingelesezko irakasgaien eskaintza handia izateagatik: Enpresen Administrazioko eta Zuzendaritzako Graduko Nazioarteko Programa (derrigorrezko irakasgaien % 100), Enpresen Administrazioko eta Zuzendaritzako eta Ekonomiako Gradu Bikoitzekoa (% 95) eta Industria Teknologien Ingeniaritzako Gradukoa (% 80).

Gradua egin bitartean hizkuntzak ikasteko programak eskaintzen ditugu oraindik ere (ingelesa, frantsesa eta alemana), eta graduekin lotutako titulu berekietara ere zabaldu ditugu programa horiek. Zehazki, 11 graduri lotutako 4 titulu bereki berri eskaini dira (Zibersegurtasuna eta Hacking Etikoa; Enpresa Familiarraren Kudeaketa; Kiroleko lesioak, eta Zoru Pelbikoaren Zainketa). Graduko ikasketen osagarri diren prestakuntza-programa horiek gure ikasleen enplegagarritasuna hobetzera daude bideratuak.

## Irakaskuntzaren antolamendua

Gobernu Kontseiluak 2019ko martxoaren 29an onetsitako irakaskuntza-programazioaren 338 aldaketa tramitatu dira 2019-2020 ikasturtean, irakaskuntza-mandatuaren doikuntzak barne. Honela banatu dira: 265 aldaketa graduen programazioan eta 73 masterrenean.

Con el objetivo de mejorar los procesos de elaboración y ajustes de la Programación Docente, estabilizar la Programación Docente y facilitar la elaboración de horarios, se aprobaron las nuevas Directrices para la Ordenación de las Enseñanzas Oficiales de la Universidad Pública de Navarra en Consejo de Gobierno el 11 de febrero de 2020.

Con estas nuevas directrices se ha elaborado la Programación Docente para el curso 2020-2021, que recoge la información relativa a 1319 asignaturas de Grado (considerando como una única asignatura aquellas que están vinculadas) y 582 asignaturas de Máster Universitario (considerando como una única asignatura las vinculadas). Esto supone un incremento de 285 asignaturas de grado y un aumento de 23 asignaturas de máster respecto a lo recogido en la Programación Docente para el curso 2019-2020.

En el curso 2019-2020 también se ha elaborado la nueva normativa reguladora de los estudios de Máster Universitario en la Universidad Pública de Navarra, buscando una adecuación a la normativa ya existente que regula los títulos oficiales de Grado, e introduciendo mejoras que redunden en una clarificación y eficacia de los procesos administrativos y académicos.

## Verificación y Acreditación de Títulos

A lo largo del curso 2019-2020 se verificaron dos nuevos Másteres, concretamente el Máster Universitario en Enología Innovadora (Interuniversitario con la UPV/EHU) y el Máster Universitario en Economía Circular (Interuniversitario con las universidades de Zaragoza, La Rioja y Lleida). Este último se convierte así en el primer título oficial internuniversitario dentro del Campus Iberus. En el curso 2019-2020 también se han re-verificado los Grados en Maestro en Educación Infantil y Maestro en Educación Primaria, para

Irakaskuntza-programazioak prestatzeko eta doitzeko prozesuak hobetu, irakaskuntza-programazioa egonkortu, eta ordutegien prestaketa erraztearren, 2020ko otsailaren 11n Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaskuntza Ofizialak Antolatzeko Jarraibide berriak onetsi zituen Gobernu Kontseiluak.

Jarraibide berri horietan oinarrituta prestatu dugu 2020-2021 ikasturterako irakaskuntza-programazioa, graduko 1.319 irakasgairi eta unibertsitate masterreko 582ri buruzko informazioa biltzen duena (elkarri lotutako irakasgaiak bakar bat direla ulertzen da). Hortaz, 2019-2020 ikasturteko irakaskuntza-programazioarekin alderatuta, graduko 285 irakasgai gehiago eta masterreko 23 irakasgai gehiago jaso dira.

2019-2020 ikasturtean, halaber, Nafarroako Unibertsitate Publikoko unibertsitate masterreko ikasketen araudi berri bat prestatu dugu, graduko titulu ofizialen gaur egungo araudira egokitzen saiatuz eta zenbait hobekuntza eginez prozesu administratibo eta akademikoak argiagoak eta eraginkorragoak izan daitezen.

## Tituluak egiaztatzea eta akreditatzea

2019-2020 ikasturtean, bi master berri egiaztatu dira: Enologia Berritzaileko Unibertsitate Masterra (Unibertsitatearteko Masterra Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera) eta Ekonomia Zirkularreko Unibertsitate Masterra (Unibertsitatearteko Masterra Zaragozako, Lleidako eta Errioxako unibertsitateekin batera). Azken hori Campus Iberusen unibertsitatearteko lehenbiziko titulu ofiziala da. 2019-2020an, gainera, beste behin egiaztatu dira Haur Hezkuntzako Irakasletzako eta Lehen Hezkuntzako Irakasletzako graduak, eta

incluir una nueva mención en Lenguaje y audición.

En cuanto a la acreditación, durante el curso 2019-2020 se han acreditado 8 títulos oficiales de Máster Universitario. Destacar los tres títulos que han obtenido Sellos Internacionales de Calidad, concretamente el Máster Universitario en Ingeniería Industrial y el Máster Universitario en Ingeniería de Telecomunicación han sido reconocidos con el Sello EUR-ACE, y el Máster Universitario en Ingeniería Informática con el Sello Euro-Inf. De esta forma, la UPNA se sitúa entre las primeras universidades españolas por número de sellos internacionales de calidad, con un total de 10 (6 en Grado y 4 en Máster Universitario).

En el marco de los procesos de acreditación y mejora de la calidad de los títulos de la Universidad Pública de Navarra, se han realizado distintos encuentros sectoriales con agentes vinculados al entorno socio económico de la sociedad navarra, y relacionados con el título objeto de valoración, que permiten conocer la adecuación del perfil de los titulados de la Universidad Pública de Navarra a las necesidades del entorno laboral. Concretamente, a lo largo del curso 2019-2020, se han realizado sectoriales para la evaluación de los siguientes títulos de Grado: Fisioterapia, Enfermería, Administración y Dirección de Empresas, Economía, Trabajo Social y Sociología.

Asimismo, se ha elaborado la adenda a las memorias de verificación de los títulos oficiales de la UPNA para recoger la adaptación de la actividad docente a la enseñanza online, tras la declaración del estado de alarma y la suspensión de la actividad presencial en la UPNA.

Entzumeneko eta Hizkuntzako aipamen berria erantsi zaie horrela.

Akreditazioari dagokionez, unibertsitate masterreko 8 titulu ofizial egiaztatu dira 2019-2020 ikasturtean. Nabarmentzekoak dira kalitatearen nazioarteko zigiluak lortu dituzten graduko hiru tituluak: Industria Ingeniaritzako Unibertsitate Masterrak eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Unibertsitate Masterrak EUR-ACE zigilua lortu dute; Ingeniaritza Informatikoko Unibertsitate Masterrak, berriz, Euro-Inf zigilua. Hala, nazioarteko kalitate zigiluen kopurua kontuan hartuz gero, Espainiako puntako unibertsitateen artean dago NUP, guztira hamar baititu (6 zigilu graduetan, eta 4 unibertsitate masterretan).

Nafarroako Unibertsitate Publikoko tituluak egiaztatu eta haien kalitatea hobetzearren, sektorekako zenbait bilera antolatu dira baloratu beharreko tituluekin erlazioa duten Nafarroako gizarteko eragile sozioekonomikoekin, jakiteko Nafarroako Unibertsitate Publikoko tituludunen profila egokia ote den lan inguruneak dituen beharretarako. Zehatz-mehatz, honako gradu hauek ebaluatzeko egin dira sektorekako bilerak 2019-2020 ikasturtean: Fisioterapia, Erizaintza, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Ekonomia, Gizarte Lana eta Soziologia.

Azkenik, NUPeko titulu ofizialen egiaztapen txostenen gehigarriak prestatu dira irakaskuntza-jarduera onlineko modalitatera egokitzeko, alarma egoera deklaratu eta irakaskuntza presentziala etetearen ondorioz.

## Planificación Lingüística

Se ha traducido al euskera material docente para la impartición de asignaturas en euskera en los diferentes títulos durante el curso académico 2019-2020. También se ha establecido un servicio de revisión y asesoramiento lingüístico de materiales docentes en euskera. El total de textos docentes traducidos y revisados ha sido de 114 documentos. Se continúa con el desarrollo y mantenimiento del sitio web "Irakasmateriala euskaraz" (Material docente en euskera) dirigido al profesorado que imparte docencia en euskera y que da acceso al material docente traducido al euskera en la Universidad, dentro de la plataforma virtual MiAulario.

Se sigue promocionando el aprendizaje y profundización del euskera para el PAS y el PDI en centros de enseñanza de euskera y en la UPNA. Igualmente, se ha trabajado en el diseño de un programa de formación permanente y on-line, consistente en píldoras didácticas y cursos específicos, con el fin de mejorar la capacidad y autonomía del PAS y PDI de la UPNA en la edición de textos en euskera.

Finalmente, se han realizado diversas actividades de promoción del euskera en la universidad, se han publicado en euskera distintos trabajos académicos y de apoyo a la enseñanza, en colaboración con la Sección de Publicaciones, y se han estrechado las relaciones con otras instituciones u organismos. Destacar la participación de la UPNA con un stand en la Feria de la Cultura Vasca de Durango y la colaboración con el Vicerrectorado de Euskera de la UPV/EHU, con objeto de estrechar las relaciones para una mayor cooperación entre ambas universidades.

## Hizkuntza-plangintza

2019-2020 ikasturtean ere, zenbait titulaziotako irakasgaiak euskaraz emateko materiala euskaratu da NUPen. Gainera, euskarazko irakasmaterialak zuzentzeko eta hizkuntzari buruzko aholkuak emateko zerbitzua jarri da martxan. Guztira, 114 testu-dokumentu itzuli eta zuzendu dira. Ildo horretatik, "Irakasmateriala euskaraz" webgunea garatzen segitu du Unibertsitateak, eta haren mantentze-lanak egiten. Euskaraz irakasten dutenentzako baliabide bat da, eta aukera ematen die Unibertsitateak euskaratu duen irakasteko materiala eskuratzeko NireIkasgelategia plataforma birtualean.

Administrazioko eta zerbitzuetako langileek eta irakasle eta ikertzaileek euskaltegietan eta NUPen euskara ikasteko eta haren ikaskuntzan sakontzeko jarduerak bultzatzen jarraitzen du Unibertsitateak. Bestalde, onlineko prestakuntza jarraituko programa bat diseinatu da: pilula didaktikoak eta gai zehatzei buruzko ikastaroak emanen zaizkie NUPeko AZLei eta irakasle eta ikertzaileei, euskaraz idazteko gaitasuna eta autonomia hobetzearren.

Azkenik, Unibertsitatean euskara sustatzeko zenbait jarduera egin dira, lan akademikoak eta irakaskuntzari laguntzeko lanak argitaratu dira euskaraz Argitalpen Atalarekin lankidetzan, eta harremanak estutu dira beste erakunde eta organismo batzuekin. Aipatzekoa da NUPek stand bat jarri duela Durangoko 2019ko Azokan, eta harremanak indartu dituela EHUko Euskarako Errektoreordetzarekin bi unibertsitateen arteko lankidetza areagotzeko.

## Innovación Educativa

Coincidiendo con el inicio del curso académico, el Centro Superior de Innovación Educativa puso en marcha el plan de formación al PDI 2019-2020: se celebraron 63 cursos, a los que asistieron un total de 495 profesores, con un total de 1047 inscripciones. Destacar el curso de Aprendizaje Basado en Problemas ofertado al profesorado de la Facultad de Ciencias de la Salud, al que asistieron 40 profesores, que facilitaron los magníficos resultados obtenidos en la asignatura de Medicina Integrada.

Desde la declaración del estado de alarma, con el fin de apoyar y formar al profesorado en el proceso de adaptación de la docencia presencial a la modalidad online, se programaron hasta el 30 de junio más de 300 horas de sesiones de videoconferencia por Zoom para el apoyo grupal y personalizado al PDI. Se creó el sitio Teledocencia en MiAulario para centralizar toda la información de interés en este periodo, así como facilitar el acceso a diferentes recursos para la formación del profesorado en herramientas y metodologías para la docencia online. Desde la puesta en marcha se han inscrito en este sitio un total de 695 profesores. En este sitio también se abrieron diferentes foros para proporcionar apoyo técnico de forma colaborativa entre el PDI y poder compartir experiencias docentes. En estos foros se han generado más de 400 mensajes.

Por otra parte, siempre buscando la mejora de la enseñanza, en el curso 2019-2020 se han consolidado en MiAulario los servicios web de videoconferencia Zoom, de ayuda a la detección del plagio académico y de acceso a la bibliografía de los estudiantes, y se ha integrado una herramienta de rúbrica para apoyar los procesos de evaluación de los estudiantes, especialmente la evaluación de los TFE. Destacar que desde la declaración del estado de alarma en España y la suspensión de la actividad presencial en la UPNA a mediados de marzo, la

## Hezkuntzaren berrikuntza

Ikasturte hasieran, Hezkuntzaren Berrikuntzarako Goi Mailako Ikastegiak Irakasle eta ikertzaileentzako 2019-2020ko Prestakuntza Plana jarri zuen abian: 63 ikastaro egin dira, 495 irakaslek hartu dute parte, eta 1.047 inskripzio egin dira guztira. Ikastaro bat aipatzearren, problemetan oinarritutako ikaskuntzari buruzko ikastaroa eskaini zaie Osasun Zientzien Fakultateko irakasleei, 40k hartu dute parte, eta lagungarria izan da Medikuntza Integratua izeneko irakasgaian emaitza bikainak lortzeko.

Alarma egoera deklaratu zenetik, Zoom bidezko 300 ordu programatu dira bideokonferentzia bidez irakasle eta ikertzaileei taldeka eta banaka laguntzeko, irakasleak trebatu beharra baitzegoen irakaskuntza presentziala onlineko modalitatera egokitzeko prozesuan. NireIkasgelategiko Teleirakaskuntza gunea sortu da itxialdian beharrezkoa zen informazio guztia jartzeko, eta sarbidea emateko online irakasteko tresnei eta metodologiei buruzko prestakuntza-baliabideetara. Gunea martxan hasi zenetik, 695 irakaslek eman dute izena. Gunean, badira zenbait foro, eta hor laguntza teknikoa eman dugu modu kolaboratiboan, eta esperientziak partekatu dituzte irakasleek. Guztira, 400 mezu baino gehiago sortu dira foroetan.

Bestalde, irakaskuntza hobetze aldera beti, honako web zerbitzu hauek egonkortu dira 2019-2020 ikasturtean: Zoom bidezko bideokonferentzia, plagio akademikoa detektatzeko laguntza eta bibliografia eskuratzekoa. Ikasleen ebaluazio prozesuei laguntzeko errubrika tresna bat ere integratu da, Ikasketa Amaierako Lanak ebaluatzen laguntzeko batik bat. Aipatu beharra dago Espainian alarma egoera deklaratu eta 2019ko martxoaren erdialdean NUPeko jarduera presentziala eten zenetik NUPeko irakaskuntza

plataforma virtual MiAulario y la herramienta de VC Zoom permitieron a la UPNA una rápida adaptación de la docencia presencial a la modalidad online.

Durante el curso académico 2019-2020, se han apoyado ocho proyectos de innovación docente. Destacar el proyecto de la Facultad de Ciencias de la Salud para la introducción progresiva del ABP en todos sus títulos de Grado a través de asignaturas de integración de conocimientos, y la realización de varios proyectos de innovación docente vinculados a la Facultad de Ciencias Humanas, Sociales y de la Educación y a la Escuela Técnica Superior de Ingeniería Industrial, Informática y de Telecomunicación. Además de coordinar y dar apoyo al Campus Virtual Compartido del G9 en la UPNA, que ha participado en los planes de formación del G9 con un total de 9 cursos propios (tres al PDI, cinco al PAS y uno a estudiantes de doctorado).

Durante este curso, destacar también el uso de los servicios de grabación, producción y difusión de materiales audiovisuales y eventos en directo en alta definición, así como la prestación de servicios de videoconferencia y producción en plató de materiales docentes. Además, a lo largo del curso 2019-2020 se añadieron en el portal audiovisual UPNAtv 122 videos nuevos de producción propia y se recibieron un total de 78.960 visitas.

## 3. ESTUDIANTES

### Estudiantes de nuevo acceso.

La realización de la EvAU 2019/2020 se ha visto condicionada por la situación sanitaria derivada del Estado de Alarma, y se ha realizado siguiendo las indicaciones de las autoridades académicas y sanitarias. Por un lado, los exámenes de las materias han visto modificada

presentziala bizkor egokitu zela onlineko modalitatera NireIkasgelategia plataforma birtualari eta Zoom bideokonferentzia tresnari esker.

2019-2020 ikasturtean, irakaskuntzaren berrikuntzako zortzi proiekturi eman zaie laguntza; esate baterako, Osasun Zientzien Fakultatearen proiektu bati, problemetan oinarritutako ikaskuntza delakoa fakultateko graduko titulu guztietan pixkanaka sartzen joateko ezagutzak integratzeko irakasgaien bidez, eta irakaskuntzaren berrikuntzarako zenbait proiekturi, zeinak Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin eta Industria, Informatika eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoarekin lotuak baitaude. NUPen G9 Taldearen Ikasgelategi Birtual Partekatua koordinatzeaz eta laguntzeaz gainera, 9 ikastaro berekiren prestakuntza-planetan hartu du parte ikastegiak (hiru ikastaro irakasle eta ikertzaileentzat, bost AZLentzat eta bat doktoretzako ikasleentzat).

Azpimarratzekoa da, bestalde, ikus-entzunezko materiala grabatzeko, produzitzeko eta hedatzeko zerbitzuak eta ekitaldiak zuzenean eta bereizmen handian sortzekoak erabili direla, eta bideokonferentzia zerbitzuak eta irakasmaterialak platoan produzitzekoak ere eman direla. 2019-2020 ikasturtean, ikastegiak produzitutako 122 bideo berri jarri dira ikus-entzunezko UPNAtv atarian, eta 78.960 bisita izan dituzte.

## 3. IKASLEAK

### Ikasle berriak.

2019-2020ko USEa alarma egoeraren ondoriozko osasun neurriek baldintzatu dute, eta agintari akademikoek eta osasun arlokoek agindutakoa betez egin da. Batetik, irakasgaien azterketen egitura aldatu da, eta erantzuteko aukera gehiago eman dira; bestetik, osasun eta

su estructura incluyendo más opciones de respuesta y por otro lado la prueba se ha realizado siguiendo las normas sanitarias y organizativas precisas. El número de estudiantes presentados a la prueba ha sido de 3.788, con un incremento de más de un 10% respecto a los presentados el curso pasado, siendo el incremento de los presentados en la convocatoria ordinaria del 16%. Entre las medidas extraordinarias adoptadas ha estado el alargar en un día la duración de la prueba y aumentar el número de sedes habilitadas para su realización por lo que de forma excepcional parte del alumnado realizó la prueba en institutos. Dadas las circunstancias especiales de realización se ha contado con la colaboración de un centenar de voluntarios para realizar labores de vigilancia, todos ellos miembros de la Comunidad Universitaria.

antolamendu arau zehatz batzuk betez egin da proba. Guztira, 3.788 ikasle aurkeztu dira USEra, hau da, aurreko ikasturtean baino % 10 gehiago, eta deialdi arruntean aurkeztutakoak iaz baino % 16 gehiago izan dira.
Neurri berezi batzuk hartu dira, hala nola beste egun bat gehitu da proba egiteko, eta azterketa-leku gehiago erabili dira, hau da, zenbait ikaslek institutuetan egin dituzte azterketak aurtengoan salbuespenez. USEa egoera berezian egin behar izan denez, ehun bat boluntario aritu dira zaintza-lanetan, Unibertsitateko komunitateko kideak denak.

En cuanto al proceso de admisión en la universidad de cara al curso 2020-2021, el número de plazas de grado ofertadas en la UPNA ha sido de 2.020. Para cubrir dichas plazas se han recibido 9.140 preinscripciones frente a las 5.048 recibidas en 2019 lo que supone un incremento del 81% en el número de solicitudes. El número de preinscripciones por plaza ha pasado de 2,5 a 4,5 este año. Por vez primera el número solicitantes de otras comunidades autónomas, distrito abierto, ha superado al de solicitantes de Navarra.

NUPen ikas dezaten onartzen diren ikasle kopuruari dagokionez, graduko 2.020 ikaspostu eskaini ditugu 2020-2021 ikasturterako. Ikaspostu horietarako, 9.140 ikasle inskribatu dira aldez aurretik aurten; 2019an, berriz, 5.048. Bestela esanda, % 81 handitu da eskaera kopurua. Hortaz, ikaspostu bakoitzeko 2,5 ikaslek egin zuten aurreinskripzioa aurreko ikasturtean; ikasturte honetan, aldiz, 4,5 ikaslek. Aurten, lehenbizikoz, gehiago izan dira beste autonomia-erkidego batzuetako eskatzaileak (barruti irekia) Nafarroako eskatzaileak baino.

## Participación estudiantil

Se ha puesto en marcha la elaboración del Primer Plan de Participación Estudiantil de la UPNA. En la fase de diagnóstico inicial han participado 77 personas, miembros de los distintos colectivos de la Comunidad Universitaria (PAS, PDI y estudiantes). Esta fase de diagnóstico es la primera en el desarrollo de un Plan que busca aumentar la implicación estudiantil en la vida universitaria con el fin de contribuir al desarrollo de una universidad más integradora, comprometida con el entorno y

## Ikasleen parte-hartzea

Hasi dira NUPeko Ikasleen Parte-hartzerako Lehen Plana prestatzeko lanak. Hasierako diagnostikoaren fasean 77 pertsonak hartu dute parte, Unibertsitate Komunitateko kolektibo diferenteetako kideek (AZL, I+I eta ikasleak). Diagnostiko fase hau lehenengoa da ikasleek unibertsitate-bizitzan duten inplikazioa areagotzea xede duen Plan baten garapenean, unibertsitate integratzaileago, ingurunearekin konprometituago eta iraunkorrago bat garatzen

sostenible, a la par que aumenta la vinculación del alumnado con la institución.

El asociacionismo estudiantil de la Universidad sigue renovándose este curso con la incorporación de la asociación NaByte que se añade a las seis que están activas. Esta asociación nace con el ánimo de impulsar la programación y demás aspectos de la informática en la UPNA.

## Antiguos alumnos o egresados

Dentro del Plan de Vinculación de la Universidad, Proyecto Pharus, se ha definido y aprobado el nuevo Programa A3U de forma que los antiguos alumnos de la Universidad pueden darse de alta en el Programa de forma gratuita gozando de descuentos especiales en idiomas, formación continua o deportes. Por otro lado, se continua trabajando en el desarrollo del resto de aspectos recogidos en el Plan de Vinculación.

# 4. EMPLEO

Son varias y diversas las actividades realizadas que pueden aumentar la empleabilidad de nuestro alumnado y que se han desarrollado a lo largo del curso. Estas son las más destacadas.

## Prácticas Externas

El desarrollo de las Prácticas Externas ha estado condicionado en el segundo semestre del curso por la situación derivada de la declaración del Estado de Alarma. Algunas de las prácticas como las del ámbito de la salud o las desarrolladas en los centros escolares tuvieron que ser suspendidas por razones obvias. De aquellas que se llevan a cabo en otro tipo de instituciones públicas y privadas aproximadamente el 50% pudieron continuar en la modalidad de "telepráctica". En los casos en los que las prácticas se vieron suspendidas y no pudieron seguirse de forma no presencial, el alumnado

laguntzeko, eta, aldi berean, ikasleek erakundearekin duten lotura areagotzeko.

Unibertsitateko ikasle elkarteen kopuruak gora egin du aurtengo ikasturtean. NaByte elkartea batu zaie lehendik zeuden sei elkarteei. Elkarte hau NUPen programazioa eta informatikaren gainerako alderdiak bultzatzeko asmoz sortu zen.

## Ikasle ohiak eta egresatuak

Pharus Proiektua Unibertsitatearen Lotura Planaren barruan, A3U programa berria definitu eta onartu da. Horrela, unibertsitateko ikasle ohiek dohainik eman dezakete izena programan, eta hizkuntzetan, prestakuntza jarraituan edo kiroletan deskontu bereziak dituzte. Bestalde, Lotura Planean jasotako gainerako alderdiak garatzen jarraitzen dugu.

# 4. ENPLEGUA

Jarduera bat baino gehiago egin ditugu ikasturtean zehar, gure ikasleek lana aurkitzeko dituzten aukerak handiagotu ditzaketenak. Hauek nabarmendu ditugu.

## Kanpoko praktikak

Ikastaroaren bigarren seihilekoan alarma-egoeraren deklarazioaren ondoriozko egoerak baldintzatu du kanpoko praktiken garapena. Zenbait praktika, hala nola osasun-arlokoak edo ikastetxeetan garatutakoak, bertan behera utzi behar izan ziren, bistako arrazoiengatik. Beste erakunde publiko eta pribatu batzuetan egiten direnetatik, % 50ek edo jarraitu ahal izan zuten "telepraktika" modalitatean. Praktikak bertan behera utzi eta modu ez-presentzialean jarraitu ezin izan ziren kasuetan, ikasleek beren prestakuntza osatu zuten Kanpo Praktikak irakasgaia gainditzeko gaitasun egokiak lortzeko

completó su formación con la realización de actividades diversas que les permitieron adquirir las competencias adecuadas para superar la asignatura de Prácticas Externas. Todo con el fin de que ningún/a estudiante haya dejado de titular por no haber podido completar sus prácticas.

### Plan integral para la mejora de la empleabilidad y el emprendimiento en la UPNA

El desarrollo del Plan se ha visto alterado en algunas de las actividades por la situación de confinamiento. Estas son algunas de las acciones del Plan llevadas a cabo este curso.

1. Un centenar de estudiantes que el curso pasado realizaron el test de competencias se han inscrito en trescientos cursos de competencias transversales, tanto en su modalidad presencial como online. Así mismo casi otro centenar de estudiantes han realizados cursos de competencias transversales en formato online por la suspensión de sus prácticas curriculares.

2. En octubre de 2019 se realizó la XII edición del Encuentro de Empleo, con la participación de 66 organizaciones y alrededor de 1.300 participantes, un 30% más que el curso pasado.

3. El 35% de todo el alumnado de segundo de grado de la Universidad ha evaluado sus competencias transversales y han recibido un informe personalizado con sus resultados. Este porcentaje ha sido menor que el del curso pasado pues el momento de realización del test de competencias coincidió con la declaración del Estado de Alarma. Así mismo se ha enviado a los centros un informe que recoge el nivel de competencias que presenta su alumnado por cada grado.

4. Dentro del Programa de Orientación Laboral se ha atendido a un mayor número de personas que el curso pasado, tanto de forma individual

aukera eman zieten hainbat jarduerarekin. Hori guztia, inongo ikaslerik gera ez dadin titulurik gabe ezin izan dituelako praktikak amaitu.

### NUPeko ikasle ohien enplegagarritasuna eta ekintzailetza hobetzeko plan integrala

Planaren garapena aldatu egin da jarduera batzuetan, itxialdi-egoeragatik. Hauek dira ikasturtean burutu diren Planeko ekintzetako batzuk.

1. Aurreko ikasturtean gaitasunen testa egin zuten ehun bat ikaslek zeharkako gaitasunen hirurehun ikastarotan eman dute izena, bai modalitate presentzialean, bai online modalitatean. Era berean, ia ehun ikaslek zeharkako gaitasunei buruzko ikastaroak egin dituzte online formatuan, curriculumeko praktikak bertan behera geratu direlako.

2. 2019ko urrian, Enplegurako XII. Topaketa egin zen, eta 66 erakundek eta 1.300 lagunek hartu zuten parte topaketa presentzialean eta lantegietan, aurreko edizioan baino % 30 gehiagok.

3. Unibertsitateko graduko bigarren ikasmailako ikasleen % 35ek bere zeharkako gaitasunak ebaluatu eta emaitzak biltzen dituen txosten bat jaso dute. Ehuneko hori aurreko ikasturtekoa baino txikiagoa izan da, gaitasunen testa egiteko unea bat etorri baitzen alarma-egoeraren deklarazioarekin. Txosten bat ere bidali zaie ikastegiei, beren ikasleek graduaren arabera duten gaitasun maila zein den jasotzen duena.

4. Lan Orientazioko Programaren barruan, aurreko ikasturtean baino pertsona gehiagori eman zaie arreta, bai bakarka, bai taldeka.

como en los talleres grupales. En colaboración con los centros se han desarrollado 30 talleres de orientación (11 más que el curso pasado) dirigidos a estudiantes de últimos cursos de grado. Además, han realizado talleres de orientación online 91 estudiantes que vieron suspendidas sus prácticas curriculares.

5. Se ha desarrollado con éxito y de forma online la segunda edición del Plan de Mentoría Sénior en el que profesionales de gran experiencia, directivos y directivas en activo, asesoran y acompañan a quienes van a incorporarse en breve al mundo laboral. Se ha contado con 97 mentoras y mentores en este atractivo plan, en muchos casos egresados y egresadas de la UPNA, que han mentorizado a 124 estudiantes.

## Formación continua

A lo largo de este curso las acciones más destacadas en este ámbito han sido las siguientes:

1. Se ha aprobado una nueva normativa reguladora de las Enseñanzas Propias de la Universidad Pública de Navarra con el fin de separarla de las normas de las enseñanzas oficiales de Máster.

2. En el avance de la docencia online o semipresencial llevado a cabo en las enseñanzas propias, se ha desarrollado el primer Máster Propio 100% online, el Máster en Cultura Científica. En general y debido al Estado de Alarma las enseñanzas propias tuvieron que adaptarse a la impartición de docencia en formato online.

3. Se ha consolidado la colaboración con el Gobierno de Navarra en materia de formación continua con diversos departamentos y se continúa con la importante oferta de formación *in Company* UPNA.

Ikastegiekin lankidetzan, 30 orientazio-lantegi egin dira (aurreko ikasturtean baino 11 gehiago), graduko azken ikasmailetako ikasleentzat. Gainera, curriculumeko praktikak bertan behera geratu zitzaizkien 91 ikaslek orientazioko online lantegiak egin dituzte.

5. Senior Mentoretzako Planaren bigarren edizioa arrakastatsua izan da, eta online egin da. Esperientzia handiko profesionalek jardunean dauden zuzendaritzako kideek aholku eta laguntza ematen diete laster laneratuko direnei. 97 mentorek eman dute izena plan erakargarri honetan. Kasu askotan, NUPeko egresatuak dira, eta 124 ikasle mentorizatu dituzte.

## Prestakuntza jarraitua

Honako hauek dira ikasturtean esparru horretan egin diren ekintza aipagarrienak:

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasketa Berekiak arautzen dituen araudi berri bat onetsi da masterreko ikasketa ofizialen arauetatik bereizteko.

2. Ikasketa berekietan egindako online irakaskuntzaren edo erdipresentzialaren aurrerapenean, % 100 online den lehenengo Master Berekia garatu da, Kultura Zientifikoko Masterra. Oro har, eta alarma egoeragatik ikasketa berekiak egokitu egin behar izan ziren eskolak online formatuan emateko modalitatera.

3. Lankidetza sendotu da Nafarroako Gobernuko hainbat departamenturekin prestakuntza jarraituaren arloan, eta *in Company* NUPen prestakuntza eskaintza garrantzitsuarekin segitzen da.

4. En este curso se han impartido seis Títulos Propios asociados a grados, lo que ha permitido ampliar y enriquecer la oferta de estudios del curso 2019-2020.

## 5. EMPRENDIMIENTO

En este ámbito son varias las acciones destacadas.
1. Se ha continuado con las actividades desarrolladas en los últimos años desde LUCE (Laboratorio Universitario de Creación de Empresas) para alumnado de grado, master y doctorado y para personal investigador y docente. A lo largo del curso 2019/2020 se ha continuado con el programa de valorización tecnológica de proyectos con estudiantes o egresados y egresadas de la UPNA y destaca la realización del webinar "De la investigación al Mercado: Explotación comercial y social de los resultados de investigación" celebrado durante el Estado de Alarma en tres sesiones online con la asistencia de 76 personas.

2. La empresa Pyroistech ha sido declarada spin off de la Universidad Pública de Navarra siendo así la séptima empresa con este sello y la sexta en la que la universidad entra en su accionariado. Pyroistech S.L. desarrolla equipamiento de laboratorio, concretamente fuentes de luz acoplada a fibra óptica basada en tecnologías LED y SLED, y soluciones integrales basadas en la tecnología de análisis óptico para diferentes sectores industriales.

3. En el apartado de premios y concursos de emprendimiento, el proyecto Neuraptic de la UPNA, dedicado a la automatización de tareas repetitivas mediante redes neuronales artificiales, resultó ganador en los Premios Iníciate 2020 de Gobierno de Navarra. El proyecto AsphalOptics también de la UPNA y dedicado a la monitorización de diferentes parámetros de vehículos en movimiento basados en tecnología de sensores de fibra

4. Aurtengo ikasturtean gradu jakin batzuekin lotutako sei titulu bereki eman dira, eta horrek aberastu eta zabaldu egin du 2019-2020 ikasturteko ikasketen eskaintza.

## 5. EKINTZAILETZA

Arlo honetan, badira nabarmendu beharreko zenbait gauza.
1. Jarraipena eman zaio Enpresak Sortzeko Unibertsitateko Laborategiak (LUCE) azken urteetan graduko, masterreko eta doktoretzako ikasleentzat eta ikertzaileentzat eta irakasleentzat garatutako jardueren lerroari. 2019-2020 ikasturtean zehar, proiektuen balorizazio teknologikorako programarekin jarraitu dugu NUPeko ikasle edo graduatuekin, eta nabarmentzekoa da "Ikerketatik merkatura: ikerketaren emaitzen ustiapen komertziala eta soziala" webinarra egin dela, alarma-egoeran, hiru online saiotan, 76 pertsonak parte hartuta.

2. Pyroistech enpresa Nafarroako Unibertsitate Publikoko spin off deklaratu dute. Zigilu hori duen zazpigarren enpresa da, eta seigarrena, berriz, unibertsitatea bere akziodunen artean duena. Pyroistech S.L. enpresak laborategiko ekipamendua garatzen du, zehazki LED eta SLED teknologietan oinarritutako zuntz optikora egokitutako argi iturriak, eta analisi optikoaren teknologian oinarritutako soluzio integralak hainbat industria-sektoretarako.

3. Ekintzailetzako sari eta lehiaketen atalean, NUPeko Neuraptic proiektua, sare neuronal artifizialen bidez zeregin errepikakorrak automatizatzeari buruzkoa, Nafarroako Gobernuaren Iníciate 2020 Sarietan irabazlea izan zen. NUPeko AsphalOptics proiektuak, kostu txikiko zuntz optikoko sentsoreen teknologian oinarritzen diren mugimenduan dauden ibilgailuen parametroak monitorizatzeari buruzkoak, accesita irabazi

óptica de bajo coste, fue merecedor del accésit en los mismos Premios Iníciate. El proyecto "**Esterilización de ambientes y utensilios mediante luz ultravioleta de muy baja longitud de onda"** promovido por investigadores de la UPNA y el proyecto "**Nueva terapia para el COVID-19" promovido por Eversens, spin off de la UPNA, fueron dos de los cuatro proyectos premiados** en los "Premios Innovación y Emprendimiento contra el COVID-19" de Gobierno de Navarra.

## 6. INVESTIGACIÓN

